



*Miguel de Unamuno XIX. Saria  
Bilboko Udala*

**Fitxa teknikoa / Ficha técnica**

Izenburua / Título: **Hirutasun Santuaren misterioa**  
Egilea / Autor: **Galo Martínez de la Pera**  
Saila / Colección: Saiopaperak - Pentsamendua eta gizartea, 24  
ISBN / EAN: 978-84-9109-472-2  
Salneurria / Precio: 15 € (BEZ barne – IVA incluído)  
Orri kopurua / N° páginas: 184  
Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 14 x 22,5 cm  
Materia: Saiakera - Ensayo

**Egilea / El autor**

**Galo Martínez de la Pera** Urtaran jaio zen (Araban), 1945ean. Filosofian eta medikuntzan lizentziatua. Besteak beste liburu hauek idatzi ditu: *Txalapartaren Oihartzuna* (2006), *Musu Truk* (2009), *Euskaldunon komunitatea. Independentziatik haratago* (2014, Becerro de Bengoa saria).

**Lana / La obra**

Kristautasuna erlijio askatzailea eta aurrerakoia da eta haren *ondorio* da idazkera erlijioen superstizio, dogmatismo eta fanatismotik askatzea. Hori da liburu honetan aurkezten den tesi paradoxikoa. Horren arabera, ohiko iritziaren kontra, kristautasuna ez litzateke atzerakoia; baina, aldi berean, askatasun eta aurrerapenaren ideologia dogmatikoa auzian eta susmopean geratuko litzateke.

Espiritu askatzaile eta aurrerako kristaua Pauloren idatzietan agertzen da lehenengo aldiz. Espiritu Santua du izena. Espiritu kristau horren hegaldia, halere, luzea izango da. «Amerika» -Amerikako Estatu Batuak zehatzago esanda- izango du helmuga. Han kokatuko du bere azken eta betiko egoitza. «Amerika» litzateke, bada, espiritu kristauaren goreneko haragitza, hau da, askatasun eta aurrerapenaren nazio kristaua.

Jainkoek liburuak idazten ikasi zutenetik idazkeraren hainbat espiritu agertu dira. Haien artean Espiritu Santua. Idazkeraren espiritu guztiak bezala, irudimentsua eta sortzailea da. Baina Espiritu Santuak berezitasun hau dauka: bere liburuak idatzi ahal izateko, beste jainkoek (edo, denboraren poderioz, jakintsuek) idatzitakoak faltsutu eta lapurtzera behartuta dago.

Horregatik, kristautasuna liburu sakratu bat faltsutze eta lapurtzearekin hasi zen. Liburu hori ez zen nolana hikoia, juduen liburu sakratua baitzen. Faltsutze eta lapurtze hori Paulok egin zuen, baina erabili zuen gakordea jainkozko usoaren luma miragarria izan zen. Lapurtze eta faltsutze hori nola burutu zen eta ekarri zituen ondorioak -mendebaldeko zibilizazioa bera- ezagutu nahi izanez gero, liburu hau irakurri beharko zenute, *beste inon ez baita kontatzen*.

Liburuxka honetan, lehenengo aldiz, historiari buruzko azalpen materialista berri bat agertzen da. Teoria berri horren izena *darwinismo historikoa* izan liteke, haren oinarri zientifikoa darwinismoa baita. Teoria honen arabera, historiaren motor eragilea *mintzoaren eta idazkeraren* arteko erlazioa da.

